



Bilbon, 2014ko apirilaren 1ean

Zuzendari jn/and. hori:

Honen bidez jakinarazten dizut honako hau dela aplikazioko arautegia **onarpen eta matrikulari dagokionez Batxilergoan**, 2014-15 ikasturterako:

- 35/2008 Dekretua (martxoaren 6ko EHAA).
- 2014ko martxoaren 7ko Agindua (apirilaren 1eko EHAA).

Aukera egongo da xedapenetara heltzeko Hezkuntza Sailaren eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren (EHAA) web atarrietatik.

Onarpen eta matrikulako prozesua kudeatu beharko da Kudeaketa Akademikoko aplikatibo informatikoaren bidez.

Jarraian nabarmentzen dizkizut berritasun nagusiak, hasierako mailetarako bezalaxe, aurtun Batxilergoa onartzeko prozesuaren kudeaketan sartu direnak:

- **Onarpen eskabidea osoki egin ahal izango da Interneten bidez.** Garrantzitsua da ikastetxe bakoitzak kontrolatzea bide horren bitartez jasotako eskabideak, eta arduraz zaintzea haietariko bat ere bete gabe geratu ez dadin zentroari egotz dakizkiokkeen zioengatik.
- **Baremoko puntuak OOGk** erabakitako irizpideen arabera eman ahal izateko, **aplikatiboan eskegita** geratu beharko du dagokion dokumentuak apirilaren 30a baino lehen.

Puntuak Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara onartzeko ezarritakoa bezalako irizpideengatik emanaz gero, prozesu horretarako aplikatiboan eskegia dagoen dokumentua baliozkoa izango da beste ezein jokabide gabe ikastetxearen aldetik.

Batxilergorako Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailetarako adostutakoa **ez bezalako irizpideak ezarri nahi izanez gero**, edo Batxilergo onartzeko aplikagarriak izan ezean, **ordezkatu** egin beharko duzue gaur egungo dokumentua etapa bakoitzerako irizpide orokorrak zein espezifikoak bere barruan daramatzen beste batez.

Lana errazte aldera, honekin batera igortzen dizkizuet jarraian datozen dokumentuak:

- Laburpen bat prozesuko **egutegiaz** eta zenbait **kontu interesgarri**.
- **Eragin eremuak** 2014-15 ikasturterako, **Arteak** modalitaterako (barematu beharreko kasuetan soilik aplikatuko litzateke).

Halaber, aplikatiboa erabiltzeko eskuliburua zein inprimaki eredu hutsa egongo dira ikastetxeen eskura aplikazio informatikoan bertan. Eskabideko inprimaki eredu huts hori, nahi duten ikastetxeek erabili ahal izango dute datuak aplikatiboan sartu baino lehenago eskuz jasotzeko; aitzitik, dokumentu horrek ez dauka batere balio administratiborik onartzeko eskabidearen eraginetarako, baliozko dokumentu bakarrak aplikatibo informatikotik zuzenean inprimatuak direnez gero, bertan sartutako datuetatik aurrera, hain zuzen ere.

Edozein gauza argitze aldera, jo dezakezue Ordezkaritzako Ikastetxeen zerbitzura:

94.403.11.00

94.403.10.47

huisb021@ej-gv.es

Mila esker zure laguntzagatik.



Izpta./Fdo.: **J. Pablo de Juan**
Ikastetxeen lurralde arduraduna
Responsable territorial de centros